ALKIZAKO UDALA

# UDALBATZARRAK 2023ko MARTXOAREN 28AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2023ko martxoaren 28an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

| | |
|---|---|
| ALKATEA : | Inaki Irazabalbeitia Fernandez |
| ZINEGOTZIAK : | Jose Mª Aranzabe Urruzola |
| | Concepcion Soria Legua |
| | Gillermo Jesus Otegi Zubillaga |
| | Koldobika Jauregi Zinkunegi |
| | Unai Sorarrain Urruzola |

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Shrabani Aranzabe Pita

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

**1. Aurreko bilkuretako akten onespenak.**

**✓ 2023ko martxoaren 7an egindako ohiko bilkuraren akta.**

**2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

**3. Fakturak eta ordainketak.**

**4. Alkizako Erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzan hobekuntza lanak kontratatzeko espedientea, baldintza administratibo partikularren agiria eta baldintza teknikoak onestea, prozedura ireki erraztuaren bidez eta tramitazio arrauntaren bidez.**

**5. Alkizako erretoretxean igogailu baten ipintzeko obra zuzendaritza eramateko lanen esleipena, hala bada.**

**6. Tolosaldea Sahararekin Elkarteak eginiko diru-laguntzaren azterketa, hala bada.**

**7. Elizako erlojuaren konponketa lanak egiteko kontratua esleitzea, hala bada.**

**8. Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.L.-k eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**

**9. 2023 urterako udal zergen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**

**10. Beste batzuk**
**11. Mozioak, erreguak eta galderak.**

**.../...**

***LEHEN PUNTUA***
**AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENAK**

- 2023ko martxoaren 7ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

***BIGARREN PUNTUA***
**ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 17/2023tik 22/2023 arteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

***HIRUGARREN PUNTUA***
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

| | |
|---|---|
| BERRI LANTEGIA | 5,30 |
| KEY-LAN | 140,44 |
| IZADI LABORATEGIA S.L. | 165,77 |
| IZADI LABORATEGIA S.L. | 165,77 |
| CALPARSORO INDUSTRIAL | 32,97 |
| OSCAR GALINDO | 133,10 |
| ARGITU | 186,45 |
| DIONISIO ORMAZABAL | 575,10 |
| SOLRED | 216,65 |
| EBA ERKIZIA | 1.530,58 |
| ORANGE ESPAGNE | 258,26 |
| ORANGE ESPAGNE | 35,27 |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL | 139,15 |
| KIROLZER | 31,50 |
| MAQUELSA | 51,81 |

| | |
|---|---|
| TECNIKRONOS | 747,78 |
| ANTONIO ELOSEGUI | 65,85 |
| OSATU, S.COOP. | 350,59 |
| GUREAK MARKETING | 1,13 |
| IZENPE | 207,31 |
| TOLOMENDI | 1.011,90 |
| ANDER MOREA | 1.452,00 |
| TINTA INPRIMATEGIA | 204,97 |
| GOIENER | 24,98 |
| GOIENER | 6,21 |
| GOIENER | 8,14 |
| GOIENER | 49,62 |
| GOIENER | 14,95 |
| GOIENER | 369,80 |
| GOIENER | 10,94 |
| GOIENER | 4,73 |
| GOIENER | 196,76 |
| GOIENER | 187,88 |
| GOIENER | 853,06 |
| GOIENER | 388,78 |
| GOIENER | 313,10 |
| GOIENER | 32,05 |
| GOIENER | 542,07 |
| GOIENER | 41,65 |
| GOIENER | 419,56 |
| GOIENER | 28,54 |
| ELECTRICIDAD ZIZURKIL | 1.169,80 |
| EUSKAL-HOTZ | 5.358,79 |
| MAQUELSA | 242,00 |
| MAQUELSA | 8,87 |

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **17.981,93** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

***LAUGARREN PUNTUA***

**ALKIZAKO ERRETORE ETXEAN IGOGAILUAREN IPINTZEA ETA IRISGARRITASUN BALDINTZEN HOBEKUNTZA LANAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA, BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA ETA BALDINTZA TEKNIKOAK ONESTEA, PROZEDURA IREKI ERRAZTUAREN BIDEZ ETA TRAMITAZIO ARRUNTAREN BIDEZ**

Kontuan harturik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Alkatetza honek beharrezkotzat jotzen duela udal mugape honetako Alkizako erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanak egiteko kontratua izapidetzea.

Ikusirik Udalaren Zerbitzu Teknikoen txostena, haren alderdi teknikoak eta jarduketa horren bideragarritasuna zehazten dituena, lizitazioa arautuko duen dokumentazio teknikoan jasoz.

Kontuan hartuz, 2022ko maiatzaren 30eko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, obren dokumentazio teknikoa onartu zela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 236.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz (2017SPKL).

Ikusirik kreditu atxikipena, aurrekontuko 1.0000.682.920.00.01 2022 aplikazioaren kontura, 145.471,22 eurokoa, tramitatu beharreko zerbitzuen kontratuaren balio zenbatetsia.

Ikusita obraren zuinketa-akta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017-) 236. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Ikusirik Udal honetako Idazkaritzak emandako txosten juridikoa.

Ikusirik kontratu hori arautuko duten administrazio klausula partikularren orriak onartu direla.

Ikusirik Udal honetako Kontu-hartzailetzak egindako fiskalizazioa.
Ikusirik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz, Udalbatza dela kontratazio organo eskuduna.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- Alkizako erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanak egiteko kontratua prozedura ireki erraztuaren bidez eta tramitazio arruntaren bidez kontratatzeko espedientea onartzea. Kontratuaren balio zenbatetsiari 120.224,15 euro dagozkio, eta 25.247,07 euro jasanarazi beharko zaizkio, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkionak, eta 16 asteko egikaritze-epea.

BIGARRENA.- Alkizako Udalaren 2023. urteko gastuen aurrekontuko 1.0000.682.920.00.01 2022 aurrekontu-aplikazioaren kargura 145.471,22 euroko gastua onartzea.

HIRUGARRENA.- Obra kontratu hau prozedura ireki erraztuaren bidez kontratatzeko baldintza administratibo berezien agiria onartzea.

LAUGARRENA.- Kontratu hau prozedura ireki erraztuaren bidez esleitzeko prozedurari hasiera ematea, eta kontratazio-organo honen kontratatzailearen profilean dagokion lizitazio-iragarkia argitaratzeko agindua ematea, hogei eguneko epean egoki iritzitako proposamenak aurkez daitezen. 2017 SPKL 159.3).

***BOSTGARREN PUNTUA***

**ALKIZAKO ERRETORETXEAN IGOGAILU BATEN IPINTZEKO OBRA ZUZENDARITZA ERAMATEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA**

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du Alkizako erretoretxean jarri behar den igogailu lanetarako, obra zuzendaritza lanen kontratua esleitzea.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Alkizako udalak, helburu horretarako aurrekontu bat eskatu duela, konkretuki EBA ERKIZIA BRION, arkitektuari.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikuluaren arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. *ZERBITZU* kontratu txiki baten aurrean.

ALKIZAKO UDALA

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

*ZERBITZU* kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Beraz, Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: EBA ERKIZIA BRION Arkitektuari, Alkizako erretoretxean jarri behar den igogailuaren obran zuzendaritza lanen kontratua esleitzea 2.596,64€ diru kopuruan (BEZa kanpo), ordainketa **1.0000. 682.920.00.01 2022** kontu sailaren kontura **"Erretore etxea".**

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

***SEIGARREN PUNTUA***

**TOLOSALDEKO SAHARAREKIN ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik, aurten lehendabiziko aldiz, Tolosaldea Sahararekin elkarteak kudeatuko duela Oporrak Bakean behin-behineko udako harrera programa. Horretarako martxotik aurrera teknikari bat kontratatuko du, programarako beharrezkoa den lanketa guztia koordinatuz eta itzultzaile bat ere.

Programa honen babesean Saharako hainbat neska-mutil etorriko dira Tolosaldeako familietara uda-aldia igarotzea, bere osasuna eta garapena hobetzeko helburu nagusiarekin.Tolosaldean uda igaroko duen haur bakoitzeko kostua 1.011,00 eurotakoa izango da.

Ikusirik, Alkizako Udalak ere parte hartu nahi duela programa horretan.

Ikusirik, programa hori gauzatzeko hitzarmen bat prestatu dela Tolosaldea Sahararekin Elkarteak eta Alkizako Udalaren artean sinatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udalak, Oporrak Bakean programan parte hartzeko onespena ematea.

BIGARRENA: Alkizako Udalak, Oporrak Bakean programarako, 480.230.00.01 kontu sailean, 1.900,00 euro aurrikusten dituela, programak sortarazten dituen gastuekin laguntzeko. Aipaturiko gastua egiteko onespena ematea eta ordainketa burutu dadin agintzea.

HIRUGARRENA: Alkizako Udalak eta Tolosaldea Sahararekin Elkarteak Oporrak bakean programa aurrera eramateko prestatutako hitzarmena onestea. Inaki Irazabalbeitia Fernandez, Alkizako Alkatea ahalmentzen delarik aipaturiko hitzarmena sinatzeko.

***ZAZPIGARREN PUNTUA***

**ELIZAKO ERLOJUAREN KONPONKETA LANAK EGITEKO KONTRATUA ESLEITZEA, HALA BADA**

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du Alkizako elizako erlojuaren konponketa lanak egiteko kontratua esleitzea.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Alkizako udalak, helburu horretarako aurrekontu bat eskatu duela, konkretuki TECNIKRONOS enpresari.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikuluaren arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. *ZERBITZU* kontratu txiki baten aurrean.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

*ZERBITZU* kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Beraz, Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: TECNIKRONOS enpresari, elizako erlojuaren konponketa lanak egiteko kontratua esleitzea 1.825,00€ diru kopuruan (BEZa kanpo), ordainketa **1.0000. 212.920.00.01** kontu sailaren kontura **"Elizako erlojuaren konpontze lanak".**

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**
**TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.L.-k EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

San Martin Plaza, 12zkia.20494 Alkiza*Tel.:943 69 02 35 * e-mail: udala@alkiza.eus *web: www.alkiza.eus

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldeak aurkezturiko Alkizako Udala eta Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. –ren arteko 2023 urterako Lankidetza Hitzarmena. Hitzarmenaren helburua, TKT-K eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea izango da.

Ikusirik aipaturiko Lankidetza hitzarmenean, Alkizako Udalak, Tolosaldeko Komunikazio Taldeari emango dion diru-laguntza zehazten dela. Alkate-Lehendakari jaunak biztanleko 4€ ematea proposatzen duelarik.

Gaia azterturik, bertaratuek, gehiengoz, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldearen eta Alkizako Udalaren arteko Lankidetza hitzarmena onestea, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko. Hitzarmena 2023 urterako balioa izango du.

BIGARRENA: Inaki Irazabalbeitia Fernandez, Alkizako Udaleko Alkate-Lehendakari jauna ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldeari 1.500,00 eurotako diru ekarpen zuzena ematea, egonkortasun ekonomikoa bermatzeko (biztanleko 4€). Ordainketa, 2023eko udal aurrekontuetako 471.334.00.01 partidaren kargura egingo da.

LAUGARRENA: 1.500,00 eurotako gastua onestea.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldeari ematea.

***BEDERATZIGARREN PUNTUA***

**2023 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik 2023 urterako udal zergen hobari deialdia onestu zela, ondasun higiezinen gaineko zergaren kasuan, familia ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldeak aurkezturiko Alkizako Udala eta Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. –ren arteko 2023 urterako Lankidetza Hitzarmena. Hitzarmenaren helburua, TKT-K eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea izango da.

Ikusirik aipaturiko Lankidetza hitzarmenean, Alkizako Udalak, Tolosaldeko Komunikazio Taldeari emango dion diru-laguntza zehazten dela. Alkate-Lehendakari jaunak biztanleko 4€ ematea proposatzen duelarik.

Gaia azterturik, bertaratuek, gehiengoz, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldearen eta Alkizako Udalaren arteko Lankidetza hitzarmena onestea, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzeko. Hitzarmena 2023 urterako balioa izango du.

BIGARRENA: Inaki Irazabalbeitia Fernandez, Alkizako Udaleko Alkate-Lehendakari jauna ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldeari 1.484,00 eurotako diru ekarpen zuzena ematea, egonkortasun ekonomikoa bermatzeko (biztanleko 4€). Ordainketa, 2023eko udal aurrekontuetako 471.334.00.01 partidaren kargura egingo da.

LAUGARRENA: 1.448,00 eurotako gastua onestea.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldeari ematea.

***BEDERATZIGARREN PUNTUA***

**2023 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik 2023 urterako udal zergen hobari deialdia onestu zela, ondasun higiezinen gaineko zergaren kasuan, familia ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako

sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinen kasuetan eskatu daiteke, eta Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kasuan, familia ugaria izateagatik eta motorraren arabera eskatu daitezke.

Ikusirik Alkizako Udalak, 2023ko otsailaren 1ean deialdia zabaldu zuela, hobari edo bonifikazio eskaerak egiteko, azken eguna 2023ko otsailaren 28-a izan zelarik.

Ikusirik, goian aipaturiko epean 18 hobari eskaera egin direla, hauetatik, 10 eskaera familia ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta izateagatik, ondasun higiezinen gaineko zergan, eta 8 eskaera, familia ugaria eta ibilgailuaren motorraren arabera izateagatik, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan.

Ikusirik, hemezortzi eskaera hauek baldintza guztiak betetzen dituztela aipaturiko hobariak jasotzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zehazten diren zergen hobari eskaera hauek onestea:

| TITULARRA | EGITATE ZERGAGARRIA | HOBARIA |
|---|---|---|
| A.G.A. | IBI-EGUZKI PLAKAK | %25 |
| M.D.A. | IBI-EGUZKI PLAKAK | %25 |
| A.E.G. | IBI-FAMILI UGARIA | %30 |
| J.G. | IBI-FAMILI UGARIA | %30 |
| I.U.Z. | IBI-FAMILI UGARIA | %30 |
| I.A.S. | IBI-FAMILI UGARIA | %30 |
| X.G.E. | IBI-FAMILI UGARIA | %30 |
| I.U. | IBI-FAMILI UGARIA | %30 |
| **U.O.* | *IBI-FAMILI UGARIA* | *%30* |
| M.K.M. | IBI-FAMILI UGARIA | %30 |
| J.G. | IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA | %50 |
| I.U. | IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA | %50 |
| I.A. | IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA | %50 |
| I.U. | IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA | %50 |
| G.G. | IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA | %50 |
| A.E. | IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA | %50 |

San Martin Plaza, 12zkia.20494 Alkiza*Tel.:943 69 02 35 * e-mail: udala@alkiza.eus *web: www.alkiza.eus

| | | |
|---|---|---|
| X.G.E. | IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA | %50 |
| U.O. | IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA | %50 |

*Eragiketa egitean aplikatuko zaio.

BIGARRENA: Erabaki hauen berri interesatuei ematea.

***HAMARGARREN PUNTUA***
**BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

**HAMAIKAGARREN PUNTUA**
**MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

Ez dira aurkezten.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19:40 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*

IDAZKARIAK

ALKIZAKO UDALA IDAZKARITZA